



KANPO ESPAZIOEN ERABILERA DIDAKTIKOA: IKASTAROA

Ezagutu zure eskolako
biodibertsitatea!

HAZI CAMPUSA
— Arabako Campuseko Baratze Ekologikoa —



Non: Arabako campuseko ortu eko-didaktikoan

Noiz: 2023ko Urtarrilak 17 eta 19an; 15:00-17:00

Nori zuzenduta: LH eta DBHko irakasleei

Plaza kopurua: 15

Izen emateak: <https://forms.gle/EklyYuFJGxBYJSSW6>

Ezagutu zure eskolako biodibertsitatea! 2023/01/17&19

Ikastaro labur honetan **biodibertsitatearen** oinarrizko kontzeptuak eta hauek lantzeko **tresna didaktikoak** ezagutarazi eta aplikatzea nahi da. Horretarako, lehenik eta behin, **“lekuan-oinarritutako ikaskuntza” ikuspegia** erabiliko da, eskola bateko kanpo-espazioak eskaini ditzakeen aukerak aztertuz. Bigarrenik, ikasgelan eta oinarrizko **tresneria zientifikoa** erabiliz, normalean **ikusten ez ditugun izaki bizidunak** ezagutarazi nahi da, biodibertsitatearen ubikuotasuna eta funtzio zabala barneratzen laguntzeko.

*Baratzea hezkuntza-baliabide gisa erabiltzeak aukera ematen dio irakasleari gaiak testuinguru batean planteatzeko, ingurune erreal batetik abiatuta, eta, gainera, ikasleek dagoeneko erabiltzen dituzten **esperientzia pertsonalekin** edo ideiekin (aldeztu aurreko ezagutzekin) eta euren interesekin lotzeko. Gaur egungo hezkuntza-curriculumetik hurbilago dagoen terminologia erabiliz, baratzeak erraztu egiten du testuinguruan ondo kokatutako eta ikasleen esperientziak errespetatzen dituzten ikaskuntza-egoerak diseinatzea.*

Helburuak:

H1-Eskolako kanpo espazioaren habitat eta mikrohabitata ezagutzea eta bertan bizi diren izaki bizidunen laginketak ezagutzea

H2-Lurzoruan, ur putzuetan, goroldioan eta beste habitetako izaki mikroskopikoak ezagutzea lupak, mikroskopioak eta sakeleko aplikazioak erabiliz.

H3-Biodibertsitatearen garrantziaz jabetzea eta naturak ematen dizkiguten onurekin eraldionatzea hurbileko adibideak erabiliz.

H4-Eskolako ingurunekeo biodibertsitateari buruzko sekuentzia didaktiko baten adibidea ezagutzea.

H5-Indagazio gidatuaren bitartez naturako elementuak identifikatzen ikastea.



Ezagutu zure eskolako biodibertsitatea! 2023/01/17&19

Edukiak:

E1-Biodibertsitatearen kontzeptua eta ubikuotasuna.

E2-Eskola baratzekeo habitatak: zorua, urmaela, enborrak, konpost ontzia,...

E3-Izaki bizidunak eta habitatera egokitzapenak. Simbiosi baten adibidea: Likenak.

E4-Eskolan aurkitu ohi diren animalia ornodunak: hegaztiak, narrastiak eta anfibioak.

E5-Eskolan aurkitu ohi diren animalia ornogabeak: artropodoak (krustazeoak, araknikdoak eta intsektuak, moluskoak eta anelidoak.

E6-Uretako habitatetan edo hezetasun handiko habitatetan (adib. goroldioan) aurkitu ohi diren animalia mikroskopikoak (errotiferoak eta tardigradoak) eta protistak (ziliodunak eta alga mikroskopikoak).

E7-Landare hodigabeak: goroldioa.

E8-Onddoak: ardagaia eta onddo mikroskopikoak.

E9-Biodibertsitatearen onuren adibideak: ekosistemetako funtzioak, bioindikatzailak.

E10-Naturako elementuak eta izaki bizidunak aztertzekeo eta identifikatzeko estrategiak: behaketa, laginketa eta sailkapena.

E11-Laborategiko material sinpleak erabiltzekeo prozedurak eta jarraibideak.


Materialak:

Lehenengo saiorako:

- Kanpoan egoteko neguko arropa eta zapata erosoak.
- iNaturalist edota Seek aplikazioa eta PlantNet sakeleko telefonoan deskargatuta edukitzea.
- Landa koaderno eta arkatza

Bigarren saiorako:

- Ordenagailu eramangarria (ahal bada eta bikoteka).



*Ez da gutxienekeo ezagutzarik
behar, bakarrik naturan
eta laborategian ikasteko
grina!*

